




BARREN

TOKIKOM

Finaleko atarian, etxera





★
4. SOLAIRUA
2 logela
2 bainugela
Sukalde hornitua
140.000 €

etxe gain
BIZIGUNEA

**HIRU LOGELAKO AZKEN
ETXEBIZITZAK.**

10 metro koadroko terrazak
175.000 eurotik aurrera.
INFORMA ZAITEZ!



elgoibar

**AZKENEKO ETXEBIZITZA
LEHENENGO PORTALEAN.**

ERAIKITZEN!

Terraza zabalak
etxebizitza guztietan.

Etxebizitzaren %30 salduta 2. atarian.
**Sukalde guztiz hornitua eta
horma-armairuak.**
Ez galdu Elgoibarren **obra berriko
etxebizitza batean bizitzeko aukera.**
Kalitatezko materialekin eraikitako
etxea, eta **zeure gustura jartzeko
aukera guztiak** eskaintzen dituena.

WWW.ETXEGAIN.COM

2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK

IKUSPEGI ZABALAK DITUZTEN
TERRAZAK

**BEHEKO SOLAIRUAK, TXOKODUNAK ETA
GARAJERA SARBIDEAREKIN**

GARAJEA ETA TRASTELEKUA AUKERAN

AZKENENGO BI
ETXEBIZITZA,
BEHEKO SOLAIRUAN,
TXOKOAREKIN ETA
GARAJERA SARBIDE
ZUZENAREKIN.
195.000
euroan hasita



Irudi birtualak ez binkulenteak

GE grupo eibar
inmobiliaria

943 31 66 11
comercial@grupoelbar.com
San Frantzisko kalea 32, behea

689 66 08 01

OBRA FINANZIARA POR
bankoa CA
Grupo
Credito Agricola



Elgoibar BHI
www.elgoibarbhi.eu

**2020-2021 IKASTURTEA
DBHko eta BATXILERGOKo
matrikulazio epea:**

**ekainaren 22tik
uztailaren 6ra**

**Bulegoko ordutegia:
09:00etatik 14:00etara**



**DBH
eta
BATXILERGOA**

Giza eta
gizarte
zientziak

Zientziak

Arteak

- Gizarte zientziak
- Humanitateak

- Osasun Zientziak
- Zientziak eta teknika

- Artistiko musikala

943 899 316
013431@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.eu



IDOIA ARTETXE, Herritarren Arreta Zerbitzua

“Administrazio publikoan euskarak gero eta leku handiagoa dauka”



◊ **Zer moduz zaudete Herritarren Arreta Zerbitzuan?**

Bulegoa itxita eduki dugun epean telefonoz edo Internet bidez eskaini dugu arreta, eta nekezagoa izan da. Jendeak askotan arreta zuzena behar du, dokumentuak

ulertzeko laguntza behar duelako edo zerbait sinatu behar duelako... Orain bulegoa zabalik daukagu, babes neurriak hartuta: manparak jarri dizkigute eta maskara jantzita egiten dugu lan. Erabiltzaileak ere maskarekin etorri behar dira derrigor, eskuak garbitu behar dituzte eta elkarren arteko distantziak gorde. Garbitasuna ere gehiago zaindu behar dugu, eta horretarako garbitzaileak sarriago etortzen dira goizean zehar. Herritarrak kontzientziatuta daude egoera berri honekin eta arazorik gabe moldatu gara denok.

◆ **Herritarren Arreta Zerbitzuan baduzue hizkuntza irizpiderik zehaztuta?**

Gure artean euskaraz hitz egiten dugu, baina herritarrak etortzen direnean euren beharretara moldatzen gara. Bulego honetara etorkin asko etortzen dira, eta horrez gain, burokrasia kontuak askotan hobeto ulertzen dira gaztelaniaz. Jendeak euskaraz jakin arren, administrazioko inprimakiak nahiago izaten ditu gaztelaniaz irakurri, euskaraz ulertzeko oso zailak izaten direlako. Guk lehenengo hitza beti egiten dugu euskaraz, etorkinekin ere bai, eta eurek ere saiatzen dira. Telefonoa ere euskaraz erantzuten dugu, eta e-posta bidez komunikatzeko herritarrek aukeratu dezakete euskaraz soilik izatea, edo elebitan, baina gaztelania hutseko aukerarik ez dago. Administrazio publikoan euskarak gero eta leku handiagoa dauka.

◆ **Ikusten duzue aukerarik Herritarren Arreta Zerbitzuan ariguneak sortzeko?**

Bai, arazorik gabe. Hemen denok hartuko dugu parte, eta denok dakigu euskaraz, beraz, ez dago arazorik. Gure kasuan, ezinbestekoa iruditzen zait Euskaraldian parte hartzea, gu garelako Udal barruan herritarrekin zuzeneko harreman gehien daukagunak. Aurreko edizioan ere hartu genuen parte. Harrerako langileak *Ahobizi* izan ginen eta oso ondo moldatu ginen.

RAMON MUGICA, Udal Kirol Patronatua

“Euskarari lehentasuna ematen diogu eta laneko giroa euskalduna da”



◊ **Nola eragin du Koronabirusak kirol patronatuan?**

Eguneroko lanean eragin handia izan du, gure instalazioak martxoaren 13an itxi genituelako eta kirol jarduera guztia eten zelako. Hiru hilabete hauetan lanean jarraitu dugu

mantenu eta garbiketa lan bereziak eginez eta Gobernuak astero kaleratzen zituen araudi eta baldintzak betetzeko protokoloak sortzen eta egokitzen. Hasi gara instalazio batzuk irekitzen, baina zuhurtzia handiz jokatzeko ari gara kirol instalazioetan erabiltzaileen eta abonatuaren segurtasuna eta osasuna bermatzeko ahaleginetan.

◆ **Kirol Patronatuan baduzue zehaztuta hizkuntza irizpiderik?**

Euskarari lehentasuna ematen diogu langileen arteko harremanetan, eta laneko giroa euskalduna da. Sortzen ditugun idatzizko dokumentuak ere (prentsa oharrak, karteldegia, txostenak, e.a.), elebitan izan arren, lehentasuna euskarari ematen diogu, eta jendaurreko aurkezpenetan eta sari banaketetan euskara izaten da gure hizkuntza. Erabiltzaileekin ere euskarari ematen diogu lehentasuna eta lehen hitza euskaraz egiten dugu, bai telefonoz eta baita harrera bulegoetan ere. Abonatu kopurua 3.000 eta 4.000 artean izaten dugu, ikastaroetan hileroko mila pertsona gutxi gorabehera, eta gure instalazioetatik egunero 1.500 lagun inguru pasatzen dira.

◆ **Ikastaroetan bermatuta dago euskararen erabilera?**

Jendaurrean aritzen diren monitoreek lana euskaraz betetzeko ahalmena izan behar dute, eta, batez ere haur eta gazteekin, euskaraz aritzen dira. Helduen jardueretan taldeak duen euskara-ezagutzaren arabera moldatzen gara saioak emateko. Patronatuak hiru langile propio besterik ez ditu eta horietatik bik 4. hizkuntza eskakizuna daukate, eta besteak EGA. Azpikontratatuak beste langile guztiek (garbiketakoak izan ezik) euskaraz hitz egiteko gai izan behar dute eta beraietako askok, postuaren arabera, baita idazteko ere. Esan daiteke ikastaro batzuetan euskararen presentzia oso handia dela eta horiek arigune bezala erabili ditzakegula. Harrera ere kanpo arigune bat izango da. Eta barne arigune bat bulegoa.



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Beldurra

eta hausnarketarako gaitasuna blokeatzen dira. Momentu horietan geure babeserako dela ulertzen dugun edozer gauza egin genezake analisia eta norbere kriterioa alde batera utziaz.

Maila honetako beldurra denboran mantentzeak kalte handia egiten digu, bai emozionalki eta bai fisikoki; edozein emozioen espresio bortitzenek denboran irauten badute. Traumaren definizioa horretan oinarritzen da, izozten gaituen emozio sakonegi bat denboran mantentzen denean, geure funtzionamendu psikiko eta fisikoan eragin iraunkorrak sortzen ditu.

Honetaz hitz egiten ez dut inor entzuten, eta funtsezkoa da geure buruaz eta

besteetaz jakitea prozesu post-traumatiko batean murgilduak gaudela eta beharrezkoa dela hau onartzea, geure buruari sentitzeko baimena ematea, eta berregituratze prozesu honetan nahasmen momentuak izatea.

Normaltasun berriaren kontzeptua errazegi barneratu dugula dirudi eta guztiok gabiltza normaltasun bila gertatua ahaztea baimentzen diguten planak eginaz. Baina gertatuaren hatsa geure gorputzetan dugu, beldurrez egon garen bitartean ezin izan dugu hausnartu eta geure analisi propioa egin; orain da elkarrekin eseri eta bakoitzak nola bizi izan duen elkarbanatzeko, eta bizitza sozialera zabaltzen goazen honetan, nola sentitzen garen behatzeko ordua, ez garela berdinak onartuz.

Azken hilabeteetan beldurrekin bizitzen ikasi behar izan dugu orain arte sinesgaitza zitzaigun dimentsioetan. Beldurra birusa baino kutsagarriagoa eta kutsakorragoa da; eusten eta mugatzen ez badugu DNARA arte sartzen zaigu gorputz osoa kutsatuz, eta hori gertatuz gero, izoztu egiten gara, geure burua babesteko beharra gailentzen da eta arrazonamendurako

“Baina gertatuaren hatsa geure gorputzetan dugu, beldurrez egon garen bitartean ezin izan dugu hausnartu eta geure analisi propioa egin”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Irtzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloea Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► SIGLAK

Arinak dira. Edozeinek ulertzeko modukoak. Burua ez nekatzeko asmatuta daudela ematen dute. Halarik ere, ezer gutxi esanda, gauza asko esaten dute, gauza asko gogorarazten digute (GAL, X, GEO, ZEN, EAE...), eta gauza asko ezkututzen dute, edo ezkutatu nahi izaten dute. Izan ere, ez da oso demokratikoa CIAkoek talde mafiosoaren gainean sekretupean izandako dokumentuak lau haizetara zabaltzea, eta komunikabide ofizialek erratza ez pasatzea, besteekin horren gustura egiten duten bezala, hautsa ez harrotzeko. Dirudienez, entzulea, irakurlea informatzeko, formatzeko bestelako formatua dute nahiago, bestelako

kolorea. Esaterako, pintadaren zuria (Gonzalezek Iñaki Gabilondori elkarrizketa batean esandakoaren zatitxo bat baino ez da: *"Es imposible que algún día se puede demostrar que el gobierno ha participado en el GAL"*. *"Los demócratas no podemos dar credibilidad a lo que dos condenados digan a un medio"*); edota odolaren gorria, GALEkoek aste honetan, hilaren 16an, Ramón Orbe eta Tomás Perez Revilla, orain dela 36 urte mertzenario batzuek akabatzeke. Komunikabide hori deigarriagoa da, zirraraigarriagoa, antza, jendea kritikoagoa izateko. Hori bai, beti kondena, beti etika-kodearen komodina ahoan benetako arazoei bizkarra ema-

teko. Ikaragarria da, eta, gainera, agintzen dute. Alabaina, ulertzekoa da. Lagun minak dira, gustuak antzekoak dituzte, eta gauza asko dute ezkutatzeko. Ala baten batek pentsatzen du orduko ertzainen buruak, Retolazak, GALEz ezer gutxi jakingo zuela? Etekin ekonomiko, politiko eta pertsonal handiak daude, tartean, ahoa zabaltzeko, elkarri mokoka jarduteko. Gainera, noiz eta orain!, hauteskundeak ate joka ditugularik, eta bat egiteko irrikatan daudelarik. Sasioa da guztiok eginda koaz gogoeta hausnartzeko, eta bestelako politika egiteko, herri honek merezi du eta.

Juan Luis Mugertza



GREMIOEN GIDA

Arozlegiak

Erreformak

Igeltseritza

Pintura

Lelhoak

Iturgintza

Elektrizitatea

Gidan agertzearen onurak!

21€
hilean

21 €ren truke, hilerio, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian!

12
aldiz urtean

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihu ikusia.

4.885
de astero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agine Kulturagunea, 3. J.3. esk
20870 ELGOIBAR



SAUBER SHM03W LABEA



259 €

- 8 eginkizun
- Funtzio anitzekoa
- Grill bikoitiz beiratu
- 10 orduko programatzailea
- LED pantaila
- A energia klasea
- Kristal zuridun akabera



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko bi bono kanpaina jarri ditu martxan Elgoibarko Udalak aste honetan

Bi bono kanpaina jarri ditu martxan Elgoibarko Udalak aste honetan: batetik, merkataritza sustatzeko bigarren kanpainari ekin diote 3.000 bonorekin, eta bestetik, ostalaritza suspertzeko *Elgoibar On Egin* bono-kanpaina abiatu dute, beste 3.000 bonorekin. Guztira 6.000 bono jarriko dituzte salgai, tokiko kontsumoa bultzatzeko eta Elgoibarko familien ekonomia arintzen laguntzeko.

Merkataritza eta zerbitzu bono bakoitzak 15 euroko prezioa izango du eta Udalak beste 15 euro gehituko ditu; beraz, azken balioa 30 eurokoa izango da. Pertsona bakoitzak gehienez ere bi bono eskuratu ahal izango ditu (NAN bakoitzeko bi bono, eta pertsona bat bost NANekin hurbildu daiteke gehienez) eta gutxienez 14 urte beteak izan beharko ditu. Bono horiek uztailaren 31ra arte trukatu ahal izango dira. Orain arte, 94 establezimendu atxiki dira ekimenera, eta bonoak kanpainari atxikitako edozein saltoki edo zerbitzutan kontsumitu ahal izango dira.

Ostalaritzako bono bakoitzak, bestalde, 4 euroko prezioa izango du, eta Udalak beste 4 euro gehituko ditu; beraz, azken balioa 8 eurokoa izango da. Pertsona bakoitzak gehienez ere 2 bono eskuratu ahal izango ditu (NAN bakoitzeko 2 bono, pertsona bat 5 NANekin hurbildu daiteke gehienez) eta abuztuaren 31 arte egongo dira indarrean. Orain arte 20 taberna eta jatetxe atxikitu dira.

Salmenta telematikoki eta aurrez aurre

Bonoak erosteko bi aukera jarri dituzte: Bonoen erdiak aurrez



aurre salduko dituzte Santa Ana kaleko HAZ bulegoan (7:30etatik 15:30ak arte). Hitzorduak gehienez 10 minutukoak izango dira, eta pertsona bakoitzak, gehienez ere, 5 NAN edo AIZ aurkeztu ahal izango ditu. NAN edo AIZ agiriak jatorrizkoak edo fotokopiak izan beharko dira, edo bestela, agiri horien argazkiak, aurretik eta atzetik ateratakoak. Bertaratuko den jende kopurua aurretiazko hitzorduaren bidez kontrolatuko da, eta gehienez ere, 200 bono salduko dira egunean. Hitzordu bakoitzak egun eta ordu jakin batzuk ditu, eguna edo ordua igaroz gero, ez da inor hartuko. Kreditu txartela erabili ahal izango da erosketa egiteko. Hitzordua hartzeko postu bat jarri dute udaletxeko atarian.

Bonoen beste erdiak bitarteko telematikoen bidez erosi ahal izango dira www.elgoibar.eus webgunean, ekainaren 24ra bitartean. Telematikoki 500 bono salduko dira gehienez egunean, merkataritzako 250 bono eta ostalaritzako beste 250.

Jubilatuen Biltokiko taberna zabaldu dute, baina ezingo da karta jokoan egin

Hiru hilabetez itxita egon eta gero, joan zen barikuan zabaldu zuten Jubilatuen Biltokiko taberna, baina mugekin. Taberna-kafetegiko lokalari eta komunei dagokienez, egunean gutxienez sei aldiz garbituko dituzte, eta igogailua, eskailerak eta ataria ere desinfektatuko dituzte, baita aulkiak eta mahaiak ere. Debeekatuta dago kartetan jokatzeko eta guztiek erabil ditzaketen gauzak erabiltzea. Ahal den heinean, bezeroek, maskara erabil dezatela zaindu eta distantzia mantentzen dutela bermatuko dute arduradunek. Elgoibarko Udalak Biltokiko espazioa egokitu du osasun agintariek ezarritako segurtasun eta higiene neurri guztiak betetzen direla bermatzeko. Besteak beste, beste era batera antolatu dituzte mahaiak, bi metroko urruntze soziala mantentzen dela ziurtatzeko. Era berean, gizarte-aretoa zi-



gilatu dute, bertan dauden mahaiak ez erabiltzeko. Komunera joan ahal izateko pasilo moduko bat laga dute mahaien artean.

Plazako su handiaren ordeztu, su txikiagoak piztuko dituzte aurten Mendaroko auzoetan



Ekainaren 23an, San Joan bezperaz, egingo dute Akelarrea, ohi legez Mendaron, baina koronabirusaren eraginez, al daketa batzuk egin dituzte antolatzaileek. 22:15ean hasiko dute kalejira Akerrek eta haren segizioak eta bost su piztuko dituzte, auzoetan: Azpilgoetako zuhaitz bueltan piztuko dute lehengo sutzarra, eta suaren bueltan dantza egingo dute, zuzeneko musika lagun dutela. Handik, Herriko Enparantzara joango dira, eta han piztuko dute bigarren sua. Herriko Enparantzan ere zuzeneko musikarekin girotuko dute ekitaldixoa. Hirugarren geldialdia Garagartzan egingo dute, Gaztetxe aurreko aparkalekuan, eta suaren bueltan, dantza saioa egingo dute. Ondoren, ludotekako sabaian beste dantza saiotxo bat egingo dute. Martzela Osoro plazan egingo dute laugarren geldialdia, eta kalejira Mendarozabalen bukatuko dute, suaren bueltan. Sanjoanen atarian, konfinamenduan egindako koronamaloak biltzeko eskaera egin du Udalak, koronamaloak sutan erre nahi dituztelako, txar guztiak uxatzeko. Era berean, suak piztuko dituzten bost guneean, otarrak jarriko dituzte egunean bertan, goizean goiz, herritarrek euren kezka, beldur, desio eta abar guztiak papertxoetan idatzi eta hara bota ditzaten, gabean sutan erretzeko. Jai honen harira, ohartarazpen bat eta bi gomendio zabaldu dituzte Udaletik: batetik, jakinarazi dute debekatuta egongo dela beste surik piztea herrian. Bestetik, Akerrri ongi-etorria egiteko, leiho eta balkoiak kandelaz apaintzeko deia egin diete herritarrei eta azkenik eskaera bat ere egin dute: jaiaz etetik gozatzeko. Mendaroko Udalak, Ludotekak eta Gaztelekuak antolatu dute jaiak, elkarlanean.

Elgoibarren, sanjoanik ez

Osasun agintariek ezarritako segurtasun-gomendioei jarraituz, eta edukiera kontrolatzeko eta gomendatutako distantzia soziala gordetzeko zailtasunak direla-eta, San Joan gaueko suak ezingo dira egin jakinarazi dute Elgoibarko Udaleko arduradunek. Derrigorrean hartu beharreko erabakia izan dela azpimarratu dute, ospakizun hauetan parte hartu ohi duten pertsona guztien segurtasuna bermatu ahal izateko.



San Lazaroko langileei eskerrak emateko elkarretaratzea egin zuten astelehenean

Hamabost egunean behin egiten duten elkarretaratzea San Lazaro egoitzaren atarian egin zuten astelehenean Elgoibarko pentsiodunek, egoitzako beharginei egiten duten lanagatik eskerrak emateko. Baliabide gutxi eskura izan arren, egoitzako langileek lan handia egin dutela esan zuen Joseja Arregik, Gaurgeroa-Duintasuna taldeko bozeramaileetako batek, "bai koronabirusak eragindako pandemia honetan eta baita aurrez ere". Langile eta egoiliarren omenez aureskua dantzatu zuten, eta horren ostean, Andoni Segundok hartu zuen hitza, elkarretaratzerako prestatu zuten oharra irakurtzeko. Ekitaldiari amaitzeko, Eneritz Azkuek idatzitako bertso bat abestu zuten bertaratu zirenek. Bideoa: www.barren.eus

Aparkalekua antolatzeko TAO sistema etenda egongo da irailera arte

Elgoibarko Udalak jakinarazi du aparkalekua antolatzeko TAO sistemak etenda jarraituko duela irailera arte. Hori dela-eta gune urdineko aparkalekuak doakoak izango dira, besterik jakinarazi arte.

AEK euskaltegian aurrematrikula epea zabaldu dute

Euskara ikasteko eta azterketa ofizialak prestatzeko 2020-2021 ikasturterako matrikula epea irekita dago AEK euskaltegian. Interesatuek izena eman dezakete euskaltegian, bertan, Gabriel Kurutzelaegi 10 (Toletzeko tren geltokiaren parean), elgoibar@aek.eus helbidean edo 607 601 423 telefonoan.

HH5etik LH6ra bitarteko umeentzako udalekuak antolatu dituzte Elgoibarren eta Mendaron

Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak haur eta gaztetxoentzako udako eskaintza prestatu dute. 10:00etatik 13:00etara izango da eskaintza, astelehenetik barikura, baina COVID-19aren pandemia dela eta umeentzako udako eskaintza ez da ohikoa izango aurten. Hala ere, haurren aisialdirako eskubidea ahal den neurrian bermatzeko, HH5etik LH6ra bitarteko haurrentzako (2008-2014) aisia eskaintza antolatu dute Elgoibarko Udalak -Ludoteka zerbitzuaren bidez- eta Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneko Atxutxiamaika Sailak elkarlanean. Eusko Jaurlaritzak ekainaren 7an argitaratutako dekretura egokitutako eskaintza izango da, han jasotako neurri murriztaileetara.



Izena eman duten guztiei derrigorrezko higiegi eta prebentzio neurriei buruzko dokumentua bidaliko diete, eta eskaintza berriaren inguruko argibide guztiak emango dizkiete. Antolatzaileek aurreratu dutenez, lanketa berezia egingo dute aurten itxialdiak umeei eragin dizkien

kalte emozionalak arintzeko eta haurrak elkartu eta jasotzeko herriko lau gunez haztuko dituzte, jende pilaketak saihesteko. Taldeak 8 umekoak izango dira, eta haur talde bakoitzak hezitzaile bera izango du egunero. Eskaintza, berriz, herri mugatuko dute.

Mendaron ere bai

Udaleku irekiak antolatu ditu Mendaroko Udalak HH5tik LH6ra arteko neska-mutilentzat. Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika aisialdia taldeak kudeatuko ditu udalekuok. Astelehenetik barikura egingo dira, 10:00etatik 13:00etara. Helburu bat izango dute udalekuok: jolas eta beste jardueren bidez, herriko haurrei euskaraz aisialdiaz ongi pasatzeko aukera ematea, modu aktiboan, partehartzailean, sortzailean eta lagunarte osasungarrian. Gutxienez 30 umek eman beharko dute izena, bestela bertan behera geratuko da udaldia.



Sanbartolomeetako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketa antolatu dute

2020ko San Bartolome jaien inguruko erabakirik momentuz ez du hartu Udalak, baina aurreratu dute orain arte ezagutu ditugun moduko jairik ez dela izango aurten. Alabaina, jaietako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketarekin aurrera jarraitzea erabaki dute. Eta horrekin batera, haurrentzako kartel lehiaketa ere antolatu dute. Nagusien kategorian 18 urtetik gorakoek parte har dezakete. Teknika libre izango da eta lanak euskarri gogorrean aurkeztu beharko dituzte. 700 euroko sari bakarra izango da. Umeentzako lehiaketan 18 urtetik beherako elgoibartarrek har dezakete parte. Lanaren neurria eta teknika libre izango da. Hala ere, ezin izango da erliebedun kartelik aurkeztu, ezta plastilinarekin edo zerrautsarekin egindakorik ere. Kasu honetan, dirutan izango ez diren sei sari banatuko dituzte. Uztailaren 1era arte dago lanak aurkezteko epea.

Neskei dei egin die
C.D. Elgoibarrek,
futbol eskolan izena ematera

C.D. Elgoibarren futbol eskolan izena emateko epea zabalik dago, eta arduradunek neskei egin diete deia bereziki, baina 2010ean, 2011n eta 2012an jaietako neska-mutil guztiek eman dezakete izena. Izenematea APP bidez egin behar da. Edozein zalantza izanez gero, edo informazio gehiago eskatzeko cdekirolarlorla@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke.

Emakumeen Txokoa sortu nahi du Elgoibarko Udalak, lehen udal liburutegia zegoen gunean

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko ahaleginetan, beste urrats bat eman nahi du Elgoibarko Udalak, eta horretarako, Emakumeen Txokoa zabalduko dute, lehen liburutegia zegoen lokalean. Herritarrekin batera diseinatu nahi dute espazio hori zer izango den, eta horretarako partaidetza prozesu bat jarri dute martxan. Bide-orri bat adostu dute Emakumeen Kontseiluarekin eta herriko beste hainbat talde eta eragiletako emakumeekin datozen asteetarako. Horren harira, aste honetan bilera bat egin dute, baina COVID-19ak eragindako ezohiko egoera honetan herritarren ekarpenak era telematiko edo elektronikoa jasotzeko bideak lehenetsi dituzte. Parte hartu nahi dutenek galdetegi bat aurkituko dute helbide honetan <https://labur.eus/elgoibarkoemakumeentxokoasortzen> eta ekainaren 28ra arteko epea izango dute erantzuteko. Galdetegian hainbat galdera egiten dituzte: zergatik, zertarako eta zein zerbitzu eskaini beharko liratekeen txokoa, espazioa nola antolatu beharko litzatekeen, eta txokoaren izaeraren, izenaren eta irudiaren inguruak, besteak beste.

Jon Gurrutxaga eta Urbil Artolaren kontzertua gaur zortzi, Makina-Erremintaren Museoa

Jon Gurrutxaga eta Urbil Artolak osatutako bikoak kontzertua emango du hilaren 26an Makina Erremintaren museoa (20:00). Koronabirusagatik hartu beharreko neurriak tarteko, 35 lagunentzako lekua izango da. Elgoibarko Makina-Erremintaren Museoa kanpoan duen espazioan izango da kontzertua eguraldiak horretarako aukera emanez gero. Bestela, barrua egokituko dute. Kontzertua emango duten lekuan segurtasun-neurri guztiak hartuko direla ziurtatuko dute arduradunek. Horretarako, gel hidroalkoholikoak jarriko dituzte, bai eta ikus-entzuleen artean bi metroko tartea gordetzen dela zaindu ere. Hala ere, komeni da ikus-entzuleek maskara eramatea, gerta daitekeelako kontzertua barruan egin behar izatea, eta kasu horretan, bi metroko tartea gorde ezingo balitz, ikus-entzuleek jantzi egin beharko luketelako. Kontzerturako sarrerak 5 euroan jarriko dituzte salgai, museoa bertan.



Martxan da kirol argazkien lehiaketa

Elgoibarko Udalak, Udal Kirol Patronatua eta Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sailaren bitartez eta Ongarri Argazkilari elkartearekin lankidetzan, Elgoibarko Kirol Argazkien lehiaketa jarri du martxan, hamabosgarren urtez. Gaia kirola izango da, eta nahi duten zaletu guztiak har dezakete parte, bai profesionalek, eta bai amateurrek. Partaide bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez, eta lanak aurkezteko epea uztailearen 24an bukatuko da. Interesatuak Olaizaga kiroldegian aurkeztu beharko dituzte erretratuak. Saritan, 1.200 euro banatuko dituzte: Herritarrentzako saria (200 euro), gazteentzako saria (lehen saria 300 eurokoa, eta bigarrena, 200 eurokoa) eta sari orokorra (lehen saria 300 eurokoa, eta bigarrena, 200 eurokoa).

Iñaki Goitia liburuzainaren bi mikroipuin saritu dituzte

Zorioneko dabil Iñaki Goitia BARRENEko kolaboratzaile eta Mendaroko liburutegiko liburuzaina (Oñati, 1981). Batetik, maiatzeko finalista izan da La Microbibliotecaren lehiaketa ospetsuan, *La última bala* mikroipuinarekin. Mikroipuin sailean entzute handieneko lehiaketa da eta oraingo honekin bost aldiz izan da finalista. Bestetik, beste aipamen bat jaso du Madrilgo Idazleen Eskolak eta Ser Irrati Kateak antolatutako Relatos en Cadena mikroerrelatoen lehiaketan, *Descorazonador* lanarekin, eta, horrenbestez, astelehenean, hilabeteko onena izateko lehiaketan parte hartuko du. Aurrera egiteko, baina, herritarren botoa ere beharrezkoa du. Izan ere, hilabeteko onena aukeratzeko epaimahai teknikoaren iritzia ez ezik herritarrek emandako boto kopuruak ere hartzen dituzte aintzat. Aurtengo 32. asteari dagokion ipuina da berea eta astelehenera arteko epea dago botoa emateko helbide honetan sartuta: <https://escueladeescritores.com/concurso-votacion-rec/>

Elgoibarko EHBildu "harro" dago legealdiko lehenengo urtean egindako lanaz

Urtea bete zen ekainaren 15ean Elgoibarko EH Bilduko udal taldeak kargua hartu zuenetik, eta urtemuga hori aprobetxatuz, orain arte egindako lanaren erreposoa egin zuten prentsaurrean. Orain arte egindako lanaz "harro" daukela diote, eta urteko balantzea egin dute: "Bidea hasi besterik ez dugu egin, eta asko dago egiteko, baina, zailtasunak zailtasun, lorpen asko ere badaude bidean", adierazi dute. Zailtasun horiek zein diren ere argitu dute: "Udal gobernuak informazioa ezkutatu digu hasiera-hasieratik". Era berean, hainbat gairen inguruko kezka azaldu dute: "Oso jakitun gara garai zailak datozela Euskal Herri osoarentzat, eta elgoibartarrentzat ere bai. Elgoibarren ere ikusten hasiak gara krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioak". Legegintzaldiko lehen urtean "gogor" lan egin dutela adierazi du Elgoibarko Udalean oposizioko lehen indarra den EH Bilduk, eta hasieratik herritarrei aurkeztu zizkieten konpromisoei eutsi dietela azpimarratu dute: "Hitza eman genien elgoibartarrei, hiru ildo nagusi jarraituko genituela: gardentasuna, kudeaketa zorrotza eta parte-hartzea; eta, konpromisoak tinko dirau". Urte honetako lanaren xehetasunak eman zituzten prentsaurrekoan eta www.barren.eus atarian irakurri ditzakezue.



Ordainketak itzultzeko irizpideak jakinarazi ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak

Udal Patronatuak kirol-instalazio guztiak berriro ere "normaltasunez" irekitzen dituenean itzuliko die dirua bazkideei eta ikastaroetako ikasleei. Azaldu dutenez, orduan kalkulatu ahal izango dute itxita egon diren denbora horrek sortu duen kaltea, eta hala kalkulatu ahal izango dute itzuli beharreko bazkidetzaren zenbatekoa. Pentsatu dute dirua itzultzeko modurik onena 2021eko bazkidetza kuotari deskontuak egitea izango dela. Hala ere, bazkidetza berritu nahi ez dutenei 2020ko kuotari dagokion parte proportzionala itzuliko diete. Interesatuek aditzera eman beharko dute abenduaren 15a baino lehenago, olaizagaharrera@hotmail.es helbidera idatzita. Ikastaroei dagokienez, martxoari dagokion zati proportzionala itzuli ondoren, ez dituzte ikastaroak kobratu, eta baja eman zaie ikastaroetako era-biltzaileei. Hori dela-eta, berriro ere, ikastaroetan parte hartu nahi dutenek alta eman beharko dute. Martxan dauden ikastaroei buruzko informazioa 943 747 356 telefono zenbakira deituta eskuratu daiteke.

Euskarazko idazlan lehiaketako sariak banatu zituzten eguaztenean

Elgoibarko Udalak, Kultura, Euskara, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailen bitartez, antolaturiko III. Idazlan lehiaketara 199 lan aurkeztu dituzte, eta horietako 28 saritu dituzte. Sariak eguaztenean banatu zituzten, Aita Agirre kulturguneko areto balioaniztunean. Sari-banaketa ekitaldia berezia izan zen: babes neurri guztiak hartuta, sariak taldeka banatu zituzten, hiru txandatan. Lehiaketaren helburua ikasleen artean euskaraz idazteko trebetasuna sustatzea izan da, eta epaimahaiak esandakoaren arabera, maila ona erakutsi dute ikasleek. Epaimahaia herriko literaturzale eta idazleek osatu dute, hala nola, Jasone Osorok, Jon Eugik eta Iñigo Otañok. Udalak ekitaldi hau baliatu zuen 2018an eta 2019an saritutako lanekin argitaratu duen liburua aurkezteko. 300 ale argitaratu dituzte eta Udalaren asmoa da orain arteko edizioetako saridunei eta epaimahaikoei oparitzea. Eskoletan ere banatuko dituzte ale batzuk, eta gainerako aleak Udaleko Euskara Sailean eta liburutegian egongo dira eskuragai. Udalaren web atarian ere eskuragai izango da edonork ikus dezan.



Bi ordezkari izan ditugu aurten 'El Conquistador del Caribe' EITBko realitytarian: Jurdan Ezenarro mendararra eta Gorka Luna elgoibartarra. Bata finalera iristear egon da, eta bestea lehenengo kanporatua izan zen. Bakoitzak bere esperientzia kontatu digu. Bideoa ikusteko: www.barren.eus

▶ JURDAN EZENARRO

AROTZA

Telebistarik ez du etxean, baina Euskal Telebistan audientzia-datu onenak dituen saioan lehiatzea izan du ametsetako bat, eta gauzatu du. Finalera iritsi eta ikurriña etxeratzeko asmoz abiatu zen Karibera Jurdan Ezenarro (Mendaro, 1982), San Silbestre lasterketa baterako erositateko pirata-kapela hartuta. Beteranoenen taldean hasi zuen abentura, "gogotsu", baina txispa eta energia falta izan dituela aitortu du. Nabarmendu du "gorriak" ikusi dituztela Haitises parke naturalean (Dominikar Errepublikan), baina, hala ere, berriro deituz gero, itzuliko litzatekeela.

- AINARA ARGOITIA -

“'Conquis' saiora iritsita, amets bat edo ilusio bat gauzatu dut, hein batean”

◆ Gehiago nahiko zenuen, baina...

Aurrerago iritsi ezinaren penatxo hori daukat, bai, baina pozik nago. Lehenengo egunetik kontziente nintzen gertatu zitekeela finaleran sartzea, karanbolak-eta izaten direlako, baina garbi ikusi nuen konkistatzaile izateko hautagai konplotoagoak bazeudela.

◆ Ez da saiatu zaren aurreneko aldia. Beti izan duzu buruan saio hau?

Kirola eta abentura beti gustatu izan zaizkit, eta *Conquisera* iritsita, amets bat edo ilusio bat gauzatu dut, hein batean. laz hartu ninduten saiorako, baina Indiara egindako bidaiaren birus bat harrapatu nuen eta grabatzera joan baino aste bateko lehenago ospitaleratu egin ninduten. Jota laga ninduen birus hark eta azkeneko momentura arte tentatuta ibili banintzen ere, azkenean ezin izan nintzen joan.

◆ Bete al dira zure espektatibak?

101 Gaztelu intentsitate handiagorekin bizi izan nuen baino. Ez dakit hau gogorragoa delako edo zer, baina gutxiago bizi izan dut. Jende indartsu asko egon da, ni baino askoz hautagai sendoagoak eta protagonismo handiagoa izan dutenak, eta beharbada horregatik, ezkutuago egon naiz. *101 Gazteluk*



gehiago bete ninduen. Orduan, kanporaketa proba baterako norbait izendatu behar genuenean sekulako drama izaten zen. Orain, gutxiago eragin didate halakoek. Ez dakit tenple handiagoa dudan orain edo eskarmentua den, baina emozioek ez didate hainbeste eragin, ez onerako eta ezta txarrerako ere. Buruan ere hori izan dut beti: ez nuen irabaztean gora etortzerik nahi, ez eta hondoa jotzerik ere galtzean, eta uste dut hori behintzat lortu dudala.

♦ **Gorriak pasatu dituzuela entzun dizuegu. Zer egin zaizu gogorrena?**

Bat, Moskitoen ziztadak. Julian lantzik sarri esan du leku paradisiakoetan ibili garela, gozatzeko lekuetan, baina han ez du inork gozatu, ezta berak ere. Paraje ederrak badira, bai, baina Moskitoz jositakoak, eta jan egin gaituzte. Uretako motorrean hara-hona eramaten gintuztenean bakarrik baretzen zen apur bat kontua, baina une motzak izan dira. Kanpaleku aberatsean bertan ere gozamen handirik ez da izan. Pertsona batzuei, Joni [Rodríguez] eta Estherri [Perez], esaterako, ez zieten pikatzen, eta haientzat abentura oso ezberdina izan da. Okerren talde berdekoek eraman dute. Sarraskitu egin dituzte Moskitoek. Beste faktorea, nire kasuan, energia falta izan da. Urdaila hutsik izan dugu egun askotan, baina gose sentsazioa baino gehiago energia falta sentitu dut. Geldi egon ezin denetakoa naiz, baina taldean askoz aktiboago ikusten nituen beste asko. Patxi [Sanchez], Simon [Dempsey], adibidez, matxeteak hartu eta hara eta hona ikusten nituen, baina niri gorputzak ez zidan erantzuten. Buruak ere esaten zidan hobe nuela geldi egotea lesioak saihestu eta indarrak gordetzeko, baina ez, hori baino gehiago zen. Ez neukan energiarik. Sua egiten ibilitakoa naiz basoan eta beharbada neu nintzen esperientzia handiena zeukana horretan, baina gogoan zutenak eurak ziren. Nik ikusten nuen egoera hartan eta eguzkiak jotzen ez zuen leku umelean, sekulako lana egin behar genuela sua pizteko, eta piztuta ere, ez geneukala gero zer beroturik. Kanpaleku aberatsean ere komeriak izaten genituen suari eusteko. Azkenean, denborak arrazoia eman dit, inork ez duelako lortu sua egiterik, ez orain, eta ezta *Conquiseko* beste edizioetan ere.

♦ **Eta horrenbesteko miseriekin zerk egiten du hain erakargarri saio hau?**

Zailtasunei aurre egiteak. Disfruterako oso momentu gutxi izan ditut nik han. Kanpaleku aberatsean ere eguna pasatzea zen gu denon ametsa, eta uste dut Jennik [Jennifer Serrano] aitortu zuela aurreko batean. Hango esperientzia aberasgarri hori gerora disfrutatzen da gehiago.

♦ **Eta egoera zail horretan, nolakoa izan da elkarbizitza?**

Gure taldean adin jakin bateko jendea geundenez, hasieratik pentsatu genuen egonkortasun bat izan genezakeela beste batzuekin alderatuz gero. Oso talde-giro ona izan dugu, kasu pun-

tualen batean kenduta. Chiclanako Javi [Leal] aztoratu zen hasieran, eta gaiztotu zen giroa batzar batean, baina listo. Niretzat oso tipo jatorra da egia esan, baina ez zuen jakin ondo interpretatzen egoera. Fetato [Fernando Lopez] eramaten ere jakin egin behar da. Ez da tipo txarra, baina astuna bai eta nekarragarria izan zen ezagutu genuen lehenengo unetik. Guretzat traba ere izan zen proba askotan. Irabazten hasi ginen hasieran, hala ere, eta gozoan, arazo gutxiago izaten da. Gero, gehiago konplikatu zen dena, Adri [Adriana Campoy] izendatu genuenean kanporaketa proba baterako, eta are gehiago, bigarrenagoz izendatu genuenean. Hala ere, han baino gehiago gaiztotu da hemen dena, *Debate* saioan saltsa eta kaka handiagoa sortu da hemen.

♦ **Telebistaz ikusi dugun Jurdan hori zara zu?**

Umila izaten eta taldekideekiko eta besteekiko errespetuz jokatzen saiatu naiz, beti bezala, eta iruditzen zait hori dela ikusi dena hein handi batean, baina egia da jende askok esan didala ezagutzen dutenaz oso bestelako Jurdan bat ikusi dutela telebistan; ez dutela nire betiko txispa hori ikusi. Eta konforme nago, neuk ere ez dudalako beti sentitu txispa hori. Batetik, energia falta izan dut, eta bestetik, iruditzen zait, egon dela beste jende bat, Eneko bera, esaterako, jarraibideak argi markatzen zituena eta bere markaje azpian izan gaituena. Ni saiatu naiz neu izaten eta beti bezain bromazale izaten, baina ez naiz horrenbeste agertu, programak berak egiten duelako aukeraketa. Askotan etortzen ziren kanpalekuetara elkarrizketak egitera, baina ni ez ninduten eramaten. Pentsatzen dut ez zitzaiela nire perfila edo nik esan nezakeena interesatuko. Ni ez naiz joan hara inor deskalifikatzera, eta ez nien joko handirik ematen.

♦ **Azkenaldera gehiago aitatu zaituzte, bai, batez ere, hiru taldekideek jokatutako norgehiagoka haren ostean Xabier Garate Seletak zeu libratu zintuenean. Besteak baino gehiago ezagutzen zintuenez zure dohaien berri bazuela esan nahi izan zuen nonbait, baina laguna zintuela nabarmendu zuen.**

Seleta eta biok aspalditik ezagutzen dugu elkar, baina inongo momentutan ez dugu ezkutatu hori programan. Are, agertu zen momentutik argi laga genuen hori, eta nik ez dut inoiz baliatu la-

guntasun hori neure mesedetan. Tirolinako proba hori inork ez genuen lortu osatzerik eta horren karga ere badaramat gainean. Julianek kritikatu gintuen, Seletak berak ere erridikulua egin nuela errepikatu zidan behin eta berriro... baina orain, hemendik, ez berdin ikusten dut dena. Nik ez dut esaten inork ez zuenik osatuko proba gure baldintzetan, Gotzonen ezaugarrietako norbaitek pertsona arina eta oreka handikoak lortuko lukeelako beharbada, baina kritikatu gintuen jende askok onartu dit gerora, tartean Eneko Van Horenbekek eta David Secok, proba oso gogorra zela. Seleta, nire antzera, ez da nahi bezain ondo adierazten erdaraz; zorionez, bagaude Euskal Herrian oraindik batzuk euskaraz hobeto moldatzen garenak! Baina, bai, momentu hark markatu zuen geroa, eta nik esango nuke Seleta bera ere ez dela batere eroso sentitu gerora.

♦ Bereziki prestatu zinen hara joateko?

‘Ofizio asko, pobrea seguru’ dio esaerak eta horixe naiz ni. Gauza askotan moldatzen naiz, baina ezertan ez naiz ona. Baina pobra nolakoa den, zeinen kontra leihatuta behar zaren... faktore asko daude hor jokoan. Ni autonomia naiz, neure enpresa daukat eta eguneko ordu gehienak horretarako betetzen dizkit. Urtean zehar kirol askorik ezin izaten dut egin beraz, baina saiatu naiz joan aurretik igeriketako teknika apur bat hobetzen eta goiko gorputz-erdia lantzen, ni gehiago ibili naizelako hankak lantzen diren kiroletan. Baina egin nahi nuenaren laurden bat egin gabe joan nintzen abenturara.

♦ Zein duzu faboritotzat?

Julianek indartsuenak gelditzen direla esaten du sarri, eta daudenen artean badaude batzuk, Mikel [Pérez] bat esaterako, erakutsi duena benetan indartsua dela, baina badaude tartean bestelakoak ere, kanpora joan diren askok baino gutxiago erakutsi dutenak. Andrea [Azkune] bat esaterako finalerako faboritotzat neukan nik eta Adri bat ere oso kirolari osoa zen. Daudenen artean Isma [Mateo] oso-oso konpletoa da. Ismak eskarmentu handia dauka eta teknikoki oso abila da. Gimnasio bat dauka Ismak eta entrenatzaile lanetan ibiltzen da. Mikel ere oso hautagai sendoa da finalerako. Beharbada oso desgastatuta dago eta horrek faktura pasatuko dio. Era berean, oso gorpuzkera handikoa da, eta hori ere kalterako izan dakioke probaren batean. Lander [Sanchez] ere oso ondo ikusten dut. Gaztea da, baina daukan adinerako zentzuzko mutila da, eta gogorra. Besteak hobeak dira teknikaz, hala ere.

♦ **Gelditzen direnen artean emakumeak ere badaude. Ez dugu esango zuk esan duzunik, faborito nagusien artean emakume izen bat aitatu duzulako, baina emakumeek eurek sarri ikusi dute euren burua arriskuan, emakume izate hutsagatik.**

Gelditzen direnen artean Nekane [Arroyo] oso konpletoa ikusten dut, baina bihurtu gogorra dauka hankan eta horrek asko mugatuko du. Teknika handiko emakumea da. Jenni ere oso gogorra da, eta finalerako hautagaietako bat izan daiteke [azkeneko

saioan kanporatu zuten]. Idoiak [Olabarrieta] oso lehia gogorra egin zuen, baina ez dut ikusten finalean, eta Durana [Eider Garcia] neska borrokalaria da, baina ez diot ikusten konkistatzaile izateko perfilik.

♦ Badago orduan perfil bat. Zein?

Abila izan behar da, azkarra, besoz indartsua, eta batez ere, soka-kontuetan ondo moldatu behar da. Korrikalari bat ez dut ikusten adibidez irabazle izateko, *Conquis* ez delako sekula korrikako proba batean erabaki.

♦ Elkarbizitza gogorrean egindako lagunak ere lagunago dira?

Lagunak egin ditut, bai. Ismarekin, Calirekin eta Patxirekin oso harreman estua izan dut hasieratik eta oso modu naturalean eman da gainera.

♦ Abentura utzi duzu, baina programa honek beste batzutarako bidea zabaldu dizula jakin dugu.

Bai, astelehenean (ekainak 15) *Atrápame si puedes* saioa noa. Enbajada bat izan da. Sekula ez dut ikusi programa hori, ez zaizkidalako gustatzen tipo horretako saioak. Telebistarik ere ez daukat etxean, pentsa, eta *Conquis* bera ere Interneten ikusi dut. Larunbat eguerdian deitu zidaten *Atrápame si puedes* saioetik astearte iluntzerako bi minutuko bost bideo grabatu behar nituela esanez eta horietako hirutan dantzan edo kantuan agertu behar nuela zehaztuz. Beste edozer egiten nahi beste minutu grabatu ditzaket, baina abesten eta kantuan... Sekulako erretua hartu dut bideoak grabatzen. Hor bai egingo dugula erridikulua.

♦ Audientzia handieneko saioa da Euskal Telebistan ‘Conquis’, eta igarri da sare sozialetan ere. Trending topic ere izan zara.

Kontziente nintzen nora nindoan, *101 Gaztelu* saioan egona nintzelako, baina hura euskara hutseko saioa zen eta zabalpen txikiagoa izan zuen. Nahiko ondo eraman dut, hala ere, nahiz eta ohituta ez nengoen egoerei eta kritikei aurre egin behar izan diedan. Baina esperientzia aberasgarria izan da; gauza desatseginak entzuteak ere balio du azala pixkat gogortzeko eta ikasteko. Baina badakit jende bat oso gaizki ari dela pasatzen eta bakarren bat programa amaitzeko desiatzen ere badagoela. Eta adin eta eskarmentu bat duten pertsonak dira! Honek guztiak harrapatzen du pertsona gazteago bat, kontu hauek kudeatzen ez dakien bat, eta min handia egin diezaioke. Nik edozein animatzen dut joatera, esperientzia aberasgarria delako, baina doanak izan dezala guzti horren kontzientzia. Ikusleek ere ikuspegi zabalago batekin epaitu behar dute ikusten dutena, ikusten dena ez delako dena. Adibide bat jartzearren: Ismak, kapitain gisa jokatu zuen proban, sekulako erretolika bota zion Martini [Egiguren], bere ustez ez zuelako dena eman. Bera ere konturatu zen pasatu egin zela eta barkamena eskatu zion han bertan, baina hori ez da ikusi, eta Martinek berak esan behar izan zuen eztabaida-saioan.

“Han baino saltsa eta kaka handiagoa sortu da hemen, ‘Debate’ saioan”



▶ GORKA LUNA

ANTZERKIGINTZAKO IKASLEA

Ume-umetatik izan du antzerkirako zaletasuna, zainetan darama artea eta saltsero hutsa dela dio. Gorka Luna (Elgoibar, 2000) da, 'El Conquistador del Caribe' realityan parte hartu duen elgoibartarra. Berak nahi baino egonaldi laburragoa egin zuen saioan, baina hala ere, ez da damutzen parte hartu izanaz. 'Ahora caigo' eta 'Atrápame si puedes' lehiaketetan ere parte hartutakoa da, eta 'GoAzen!' telesailen figurante lanak ere egin izan ditu. Madrilen ari da antzerkirako ikasketak egiten, eta etorkizunerako ibilbidea arte eszenikoen bidetik egin nahi du.

- AINHOA ANDONEGI -

"Baldintza gogor horietan nola erantzungo nuen probatu nahi nuen"

♦ Madrilen ari zara antzerkigintzarako ikasketak egiten. Zertan ari zara zehazki?

Hiru urteko antzerkigintza diplomatura egiten ari naiz, eta oso gustura nabil. Betidanik gustatu izan zait niri antzerkiaren mundua. Herri Eskolan nenbilenean beti aurkezten nintzen boluntario antzerkietarako, eta DBHko 4. mailan nengoela GoAzen! telesailerako casting baten berri eman zidan lagun

batek. Ez nuen gehiegi pentsatu, eta izena eman nuen casting-a egiteko. Ez ninduten aukeratu, baina figurante bezala parte hartzeko aukera izan nuen hiru urtez. 16 urte nituen, eta balio izan zidan casting-ak nolakoak diren ikasteko, eta baita telebista mundua barrutik nolako den ezagutzeko ere. Gero, Batxilergo artistiko-musikala ikasi nuen Elgoibarko Institutuan, eta niretzako sekulakoak izan ziren Batxilergoko bi urte haiek. Musika lantzen genuen, instrumentuak jotzen genituen, antzerkia egin... Batxilergo ikasketak egitea norberari gustatzen zaizkion gauzak landuz izugarria da. Pila bat gozatu nuen Batxilergoko bi urte haietan. Handik Donostiara joan nintzen, antzerki laborategi batera. Urtebete egon nintzen, ikasten, eta aldi berean, umeei irakasten. Antzezlanak sortzeko pausoak ikasi nituen han: gidoiak egiten, dirulaguntzak eskatzen, dossierak egiten... Madrilgo ikasketetarako oinarria izan zen Donostiakoa. Eta, orain, Madrilen gorputz espresioa lantzen dugu batez ere. Asko esperimentatzen dugu, eta horrek erakusten digu uneoro zertarako gai zaren. Antzerkia autoezagutzarako bide luze bat da, eta



antzerkigintza ikastea ez da sekula amaitzen. Beti dago zeozter ikasteko edo sortzeko. Hori dena ari naiz ikasten.

♦ **Nondik datorkizu zaletasun hori?**

Ni telebistarekin hazi eta hezi izan naiz. Programa asko eta desberdinak ikusten nituen. Antzerkia ez horrenbeste, baina poliki-poliki hasi nintzen antzerkia ere ezagutzen, eta konturatu nintzen hori zela niri gustatzen zitzaidana. Nire izaera ere horrelakoa da, saltsero hutsa izan naiz beti, eta horrek lagundu dit nire ibilbidea bideratzen.

♦ **Nola hartu zuten etxekoek artista izateko erabakia?**

Primeran! Alde horretatik ez daukat inolako kexarik. Sorrena landu nahi nuen; moduren batean, sortzaile izan nahi nuen, eta etxekoek beti babestu naute. Beti esan didate niri hau gustatzen bazait, beraiek ahal duten guztian lagunduko didatela.

♦ **'Ahora Caigo' lehiaketan ikusi zintugun estreinakoz telebistan. Nola iritsi zinen hara eta nolako esperientzia izan zen?**

Zorakeria bat izan zen! Etxean aspertuta nengoen, eta Interneten hasi nintzen telebista programaren baterako casting bila. Betidanik neukan jakinmina, jakin nahi nuen jendea nola iristen zen telebista saio horietara, eta *Ahora Caigo* lehiaketarako izena eman nuen. Handik hilabete batzuetara deitu zidaten, ordurako ia ahaztuta neukanen. Esan zidaten Bilbon egingo zutela proba bat, eta aurkeztu egin nintzen. Kultura orokorreko galdetegi bat bete behar izan nuen lehenengo, eta gero, bideo bat grabatzeko eskatu zidaten, lehiaketarako nire burua aurkeztuz. Oso natural egin nuela uste dut, ni naizen modukoa izaten saiatu nintzen, eta aukeratu egin ninduten. Esperientzia polita izan zen, oso gustura egon nintzen, eta gainera 10.000 euro irabazi nituen. Hori sekulako oparia izan zen. Arturo Vals ezagutzea ere ondo egon zen. Oso gertukoa eta naturala iruditu zitzaidan.

♦ **Eta, nola eman zenuen 'Conquis' saiorako pausoa?**

Reality bat probatzeko gogoia neukan. Banekien saioa oso gogorra dela, baina nik nahi nuena zen nire burua ezagutzea. Baldintza gogor horietan eta jatekorik gabe nola erantzungo nuen probatu nahi nuen. Autoezagutzarako proba bezala planteatu nuen egoera, eta probatu nahi nuen baita ere ezezagunekin elkarbitzen nola moldatzen nintzen. Cas-



“Saltsero hutsa izan naiz beti eta horrek lagundu dit nire ibilbidea bideratzen”

ting-era aurkeztu nintzen, eta argi neukan aukeratzeko bananduen parte hartuko nuela. Eroso sentitu nintzen proban, lasai egon nintzen. Banekien *Conquis*erako fisikoki indartsua izatea garrantzitsua dela, baina burua bere lekuan izatea ere garrantzitsua da. Nik uste nuen alde horretatik ondo prestatuta nengoela, baina gero konturatu nintzen agian ez nagoela horren ondo. Egindakoetatik ikasten ari naiz.

♦ **Nolako izan da Conquiseko esperientzia?**

Oso ona. Aireportura joan nintzen, nora nindoan jakin gabe. Taldekideekin elkartu nintzen han, elkarrizketa batzuk egin zizkiduten, argazkiak atera eta sobre bat eman ziguten hegaldiko txartelekin. Zabaltzean jakin genuen Dominikar Errepublikara gindoa zela. Hotelera eraman gintuzten, eta gau horretan bertan hasi zen abentura. Egun bat bakarrik iraun nuen programan; eta abenturan bertan, ordu batzuk besterik ez. Batzarrera iritsi eta Julianek [Julian Iantzi realityko aurkezleak] esan zigunean egun hartan bertan lehiakideren bat edo gehiago etxera joango zirela, harrিতa gelditu ginen denok. Edizio hau desberdina izan da hasieratik, eta oso gogorra. Nik banekien amaierara arte ez nuela iraungo, baina hain azkar kanporatzea ere ez nuen espero. Kolpe gogorra izan zen niretzat.

♦ **Telebistaz ikusten ditugun bezain gogorak ala gogorra goak dira probak zuzenean?**

Oso gogorak dira. Telebistaz 10-15 minutuko proba bat ikusten da, baina han orduak izan daitezke. Nekea handia da. Ahaleginean ordu asko egon daiteke partaide bat, eta telebistan eman dezake berehala amore ematen duenaren itxura.

♦ **Zuri jarri zizuten azken proba ez zen fisikoki oso gogorra. Zenbat aldiz damutu zara tarantulak ez harrapatzeaz?**

Ikusi ondoren dena da desberdina, baina une hartan... Ez ziguten utzi eskularruak eta ezer erabiltzen, eta nik ez nuen horrelakorik espero. Oroitzen naiz bi tarantula harrapatu nituela, baina hanka puskatu zitzaien eta ihes egin zidaten. Azken momentuan egon nintzen beste bat hartzekotan, eta askotan galdetu diot nire buruari hartu izan banu zer gertatuko ote zen. Berdinketa egongo zen, eta ez dakit zein erabaki hartuko zuten kasu horretan. Beste proba bat agian, edo biok etxera... ez dakit. Baina beno, egindako akatsetatik ere ikasi egiten da.

♦ **Agurraren unean lehiakide gehienek negar egiten dute Julian lantzeekin, eta zuk ere hala egin zenuen.**

Bai. Egun oso intentsoa izan zen, emozioz beterikoa, eta nire abentura bukatzen zela jakin nuenan triste jarri nintzen. Julianek, gainera, hori bilatzen du, hori da bere papera.

♦ **Nola ikusi zenuen zure burua telebistaz?**

Egia esanda, oso gaizki pasatu nuen, eta ez nuen ikusi nahi. Azken batean ni helburu batzuekin joan nintzen programara, eta ez nituen bete. Nik nahi nuen jendeak beste Gorka bat ezagutzea, hau da, burua bere lekuan duen Gorka bat, pentsatzen duena, eta ez beti pozik eta beti txantxetan dabilen Gorka. Azkenean ezin izan nuen nire beste alde hori erakutsi, eta amorrua eta pena sentitu nuen. Orduan ez nuen nahi momentu hura gurasoekin ikustea etxean, eta lokalera joan nintzen, lagunekin ikusteko. Gurasoen aurrean ikustek lotsa pixkat ematen zidan.

♦ **Eta, zein kritika egin zizuten lagunek?**

Ba harriritu utzi ninduten. Uste nuen barre eta txantxa gehiago egingo zituztela, baina guztiz kontrakoa izan zen. Nitaz harro zeudela esan zidaten lagunak, eta horrek poz handia eman zidan.

♦ **Ikusleok ikusten ez dugun horretatik, zerk harriritu zaitu gehien?**

Ikaragarria da zelako lantaldea duten. Sekulako ekipoa daukate, eta denbora oso laburrean prestatzen dute dena. Sekulako espazioa daukate montajerako, eta han prestatzen dute dena. Proba guztiak, txalupak margotu... sekulako lana dago proben atzean eta berehala antolatzen dute dena. Produkzio handia dauka programak.

♦ **'Atrápame si puedes' saioan ere egon zinen.**

Bai, asteburuetan egoten da *Conquistetik* pasatzen diren lehiakideentzako saio berezia eta handik pasatzen dira lehiakide gehienak. Dirua egoten da jokoan, baina kasu honetan diru bila baino gehiago, ondo pasatzera joaten dira *Conquisteko* lehiakideak, eta ni ere halaxe joan nintzen. Galderak



“Nitaz harro zeudela esan zidaten lagunek eta horrek poz handia eman zidan”

ere asko izaten dira umoretsuak, partaideen eta ikusleen barrea biltzeko eginikoak, eta oso ondo pasatu nuen.

♦ **Askotan entzun izan dugu telebistan dena dela gezurra. Hala al da?**

Telebistak editatzeko eta montatzeko aukera ematen du, efektuak ere sartu daitezke eta ez da guztiz erreal. Zinema bezala. Filmak ere ez dira errealak, montaje eta edizio ostean beste itxura bat hartzen du. Alde horretatik antzerkia desberdina da, autentikoagoa eta niri gehiago gustatzen zait. Antzerkian ere azntzezleak antzezten ari dira, baina ikusten duzuna da dagoena, benetakoa, eta seguruenik bi egun jarraian antzerki bera ikustera doanak ere ez du dena berdin ikusiko. Film bat, aldiz, beti da berdina.

♦ **10 urte barru, non ikusten duzu zure burua?**

Momentu honetan ikasketetan zentratuta nago, eta amaitu arte ez dakit zer egingo dudan, baina gustatuko litzaidake artearen munduan bidea egitea. Antzerkiren batean antzezle moduan, edo Elgoibarren antzerki eskola bat sortzen ere ikusten dut nire burua. Baditut ideia batzuk, baina momentu honetan ikastea da nire lehentasuna, ondo formatzea. Oraindik 20 urte ditut eta badaukat gauzak egiteko denbora.

ELKARTE GASTRONOMIKOAK

Hego Euskal Herria bigarren fasera sartu zenean eman zuten elkarte gastronomikoak zabalteko baimena, baina mugekin, eta zuzendaritzatalde askotan zer egin erabaki ezinda ibili dira. Hona hemen bi adibide.




IBON ELORZA, Mendaroko Aizpe gastronomia elkarteko presidentea

“Martxoaren 13ko batzarraren erabaki gauen ixtea, egoera larritzen hasita zegoelako. Bazeuden biharamunerako bazkari eta afari batzuk, baina jarri ginen haiekin harremanetan eta esan ziguten eurek ere ez zutela etortzeko asmorik. Martxoaren 14az geroztik, beraz, itxita izan dugu ekainaren 5era arte. 2. fa-

sean sartu ginenean eta elkarteak zabaltea baimendu zutenean, bildu ginen eta zabaltea erabaki gauen. Baina zabaldu aurretik, astebete behar izan gauen, neurriak hartu, arauak finkatu eta barrua egokitzeko. Garbitzailea ere ekarri ezinda ibili ginen, beste elkarte batzuetan ere lan egiten duelako eta denok batera erabaki dugulako zabaltea. Hala ere, sasoirako etorri zen. Kezka bage-neukan, beste agerraldi berri hauekin ez dagoelako bermatzerik ez denik ezer gertatuko eta erantzukizuna ere badelako. Errazena izango zen ez irekitzea, baina jendea ere galdezka geneukan,

eta batzuek zabaldu aurreragorako ere hartuak zituzten mahaiak eta presio pixkat izan dugu, edo sentitu dugu gutxienez. Eusko Jaurlaritzak zabaldu zuen protokolora egokitu dugu hein batean elkarteak. Lehenik eta behin, %50eko edukiera zehaztu gauen [eguztaz geroztik, %100koa dute], 49 laguntzako lekua gehienez. Hamabosteko taldeetan etor daitezke eta euren artean bi metroko tarte gorde behar dute. Horretarako, aulkiak bakandu ditugu. Kendu ditugun aulkiak barra ondora baztertu ditugu, barran ezingo delako kontsumitu, eta telazko mantel eta zapi guztiak paperezkoengatik ordezkatu ditugu. Mostradorean gehienez bi lagun egon ahal izango dira, eta sukaldean, lau. Printzipioz, sukaldean aritzeko edo kontsumitzeko ez bada, maskara jantzi behar da, eta sarreran eskuan garbitu. Soziedade barruan norabide bakarra zehaztu dugu, jendea gurutzatu ez dadin, eta bazkideek elkartera ekartzen dituzten lagunak zerranda ere osatu behar dute, kasuren bat agertuz gero ahal den azkarren kontrolatzeko. Guk zehaztu ditugu arauak, baina bazkideek zaindu behar dute betetzen direla eta ez da erraza izango. Jan-edanerako lekuetan zaila da, eta argi ikusi da”.





ALEXANDER ALVAREZ, Elgoibarko Gure Bide elkarteko presidentea

“Martxo hasieran jende gutxiago etortzen hasi zen elkartera, eta martxoaren 14an, Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuenean, itxi egin gauen. 125 bazkide gara gu Gure Bidean, eta batez ere asteburuetan mugimendu dezentekoa ibiltzen da hemen. Horregatik, elkarteak itxita izan

den ia hiru hilabeteko tartean, igarri dugu galera bat, baina moldatu gara. Joan zen astean zabaldu gauen elkarteak, ekainaren 8an, %100ean zabalteko aukera eman zutenean. Berez, bigarren fasarako eman zuten zabalteko baimena, baina %50ean bakarrik eta distantziak gordetzeko agindurakin. Bi baldintza horiek betez gero, bazkideen erdia baino gutxiago sartzen zen, eta horregatik, ez gauen oso argi ikusi eta apur bat itzarotea erabaki gauen. Ekainaren 8an, baimen hori iritsi zenean, gelak eta erosi genituen, mahaiak bi metroko distantziara jarri genituen, kartelak eta abarrak jarri genituen elkarteetan, eta protokoloa bidali genien bazkide guztiari, jakinarazteko zeintzuk ziren hemen bete beharreko

arauak. Eta momentuz hala hasiko gara eta ikusiko dugu jendeak arduraz jokatzeko duen. Espero dut jendea portatzea. Asteburu honetan izango dugu lehenengo proba, baina ez dakit jende asko etorriko den, iruditzen zaigulako jendeak oraindik beldur pixkat baduela, kalean lasaitasun handiagoa igartzen den arren. Ez dakigu zer izango den, eta ikusiko dugu jendeak nola erantzuten duen. Hala ere, garbi daukaguna da egoera honek luze joko duela, alarma egoeratik irten arren, txertoa edo gaitzaren kontrako tratamendua iristen ez den artean metro tarterdiko edo bi metroko tarte hori gordetzea derrigorra izango delako, eta baita maskara jantzea ere, tarte hori gorde ezin denean. Hemen ere, sukaldean eta mostradorean, derrigorra izango da maskara jantzea. Momentuz bazkideek ondo hartu dute eta guk espero duguna da hona datozenek zentzuz jokatzeko, eta metro eta erdiko distantziak zaintzea elkarren artean.

Garbitasunari dagokionez, Gure Bidera egunero etortzen da garbitzailea bere lana egitera, baina Jaurlaritzako Osasun Sailetik esaten dutena da bazkariak edo afariak amaitutakoan bazkide bakoitzak hartu behar duela arduraren erabilgarritasun mahaiak eta aulkiak desinfektatzeko. Hala eta guztiz, esandakoa: garbitzailea egunero etortzen da hona”.



HEZKUNTZA - Gazteak

Agurrik gabeko azkena

Nekez ahaztuko dute ikasturte hau ikasleek, bai eta haien gurasoek ere, azkeneko hiruhilekoan etxetik jardun behar izan direlako lanean, eskolak zapaldu gabe. Azkeneko mailetakoek, baina, eskola-ordu presentzialak baino gehiago ere galdu dute. Ikasbidaira joan ezinda gelditu dira, esate baterako, Elgoibar Ikastolako DBH4ko ikasleak. Ikasturte amaierako jaialdirik ere ez da izango aurten ikastetxeetan, eta horrenbestez, agurrik gabe geldituko dira ikastetxez aldatuko diren ikasleak. Horixe dute pena handiena denek. Mendaro Ikastolako LH6ko neska-mutilek Elgoibarrera jauzi egingo dute datorren ikasturtean, eta aurten ez dute Trinitate Txiki egunez herritarrek agurtzeko aukerarik ere izan, Trinitate jairik ere ez delako izan.

- AINARA ARGOTIA -

AINARA TXURRUKA, LH6ko ikaslea Mendaro Ikastolan

“Pena hartu genuen ikastolara ezingo ginela gehiago bueltatu jakitean, gure azkeneko ikasturtea delako hau Mendaron, baina ohitu gara egoera berrira eta lanak etxean egin behar izatera eta ondo moldatu gara. Baina pena dugu aurten ezin izan dugulako Trinitate Txiki egunez Trinitaten kantatu. Seigarren mailakoentzat agur berezia izaten da hori, baina ezin izan da. Bertsolaritza saioetan prestatzen ditugun bertsoak kantatzen ditugu Trinitaten, baina aurten, bete-betean konfinamenduak harrapatu gintuen. Ikastola Egunik ere ez da izango eta seigarren mailakook ezingo dugu gurasoen kontra jokatu futbol partida berezi hori, eta Musika Eskolako jaialdian ere ezingo dugu kantatu. Elgoibarrera joateko pozik nago, baina urduri ere bai”.



GARIKOITZ EGIGUREN, LH6ko ikaslea Mendaro Ikastolan

“Ondo moldatu naiz azkeneko hiruhilekoan ikastolara joan gabe, gurasoek lagundu didatelako etxean, baina pena eman dit seigarren maila modu honetan bukatu beharrak. Ikastola itxita egon denean lagunak ere gutxitan ikusi ditut. Irakasleekin meet-ak egin ditugu konfinamenduan eta lagun batzuekin bideo-deiak egin ditugu whatsapppe, baina kalera irteteko baimena eman zutenetik, ez ditut lagunak asko ikusi, gutxitan irten naizelako. Datorren urtean Elgoibarrera joango gara eta eskolan anaia ez ikusteak eta hengo irakasleak gehiago ez ikusteak ematen dit pena. Ilusioz nago datorren urtean Elgoibarrera joateko, lagun berriak egingo ditudalako han, baina ez da broma izango hangoa, lan gehiago egin behar izango ditugulako”.



ANE LEONARDO, DBH4ko ikaslea Elgoibar Ikastolan

“Agurrik gabe gelditu gara. Ikastolan, ikasturte amaieran, bideo bat prestatzen diete azkeneko urtea dutenei, ibilbide osoaren laburpen moduko bat, eta hori behintzat egingo digutela esan digute, eta, beraz, ondo. Ikasbidairako dirua lortzeko ere lan handia egin dugu, eta jertse asko saldu ditugu, baina orain, ez dugu ikasbidairik izango. Ez dakit zer egingo duten diru horrekin, baina uste dut banatu egingo digutela. MyWay agentziaren bidez geneukan lotuta eta esan digute beharbada afariren bat edo zerbait prestatuko digutela, baina ez dakigu. Datorren ikasturtean ez dakit zer izango den. Igual txandaka joan beharko gara ikastetxera edo, baina behintzat joan ahal izango gara, eta hori behintzat hobea da etxetik lan egin beharra baino”.



EKAIN MELICA, DBH4ko ikaslea Elgoibar Ikastolan

“Eskolak on-line jasotzea berria zen niretzat eta hasieran kosta egin zitzaidan egokitzea, baina, gero, azterketak egiteko orduan-eta, erraztasun handia bilatu diot. Ikasurte amaiera hau ezberdina izango da. Diploma-banaketa ekitaldirik ez da egingo eta pena hori dugu. On-line egingo dute zerbait, baina ez da berdina izango. Behintzat ikasurte amaieran DBH4koei egiten dieten bideo hori egingo digutela esan digute. Datorren ikasurtean Institutura joango naiz Batxilergoa egitera eta espero dut klaseak normaltasunez hastea han”.



ALAIN DIEZ, LH6ko ikaslea Elgoibarko Herri Eskolan

“Hiru hilabete egon naiz hona, ikastetxera, etorri gabe, eta urduritasuna sentitu dut gaur, zurekin hitz egitera etortzean. 2 urte nituenetik nago hemen, datorren urtean institutura joango naiz, eta pena handia ematen dit Herri Eskolako jaialdia galtzeak. Hasi gabe geunden entseguekin, baina beste urte batzuetakoak ikusita bagenekien seigarren mailakoentzat berezia izaten zela. Eskolara etorri gabe egotea, bestalde, gogorra izan da. Hasieran, gainera, entzuten nuen kutsatu asko zeudela eta jende asko hiltzen zela, eta urduri nengoen, baina pozik ere bai, familian nengoelako. Lanak on-line egiteko nahiko ondo moldatu naiz. Anaiak ere lagundu dit batzuetan. Baina aukeran ematen baidate, nik nahiago dut eskolara etorri. Pozik nago datorren urtean lagun berriak egingo ditidalako, tartean Debakoak eta Mendarokoak-eta. Eta bukatzeko eskerrak eman nahi dizkiet irakasle izan ditugunei. Eskerrik asko eta agur”.



UXUE RODRIGUEZ, LH6ko ikaslea Elgoibarko Herri Eskolan

“Oso momentu onak bizi izan ditut Herri Eskolan eta jaialdia ez ospatzeak pena ematen dit. Jaialdi bukaeran loreak ematen dizkigute eta asko hunkitu egiten dira, eta hori gabe Institutura joan beharra arraroa da. Pena ematen dit hau uzteak, oso lagun onak egin ditidalako hemen. Egia esan, hemen jarraituko nuen gustura. Eskolara etorri ezin ginela esan zigutela esan zigutenean pozik hartu nuen, oporrak balira bezala, baina egia esan agobiatu egin naiz pixkat, eta nahiago dut ikasurte berria normaltasunez hastea, etxetik ez dugulako horrenbeste ikasten, bideo-deiak-eta egin arren. Eskerrak eman nahi dizkiet irakasleei, hala ere, eta baita ere lagunei, oso gustura egon naizelako beraiekin”.



LAGUNAK
colchonera textil hogar

LASTAIRA %100 NATURALA



KALITATEZKO KOLTZOIEK GARAI ZAIENETAN ERE LOA GOZATZEN DUTELAKO

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

LANA.....
Eskaerak

Eraikuntzan, adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jardungo nuke.
☎ 632 600 522

Haur Hezkuntzako ikaslea udan umeak zaintzeko prest. Euskalduna.
☎ 684 221 398

Udan umeak zaintzeko prest nago. Euskaduna naiz. ☎ 687 792 418

Edozein lan egiteko prest nago, 8:00etatik 11:00etara, eta asteburuetan, edozein ordu-tan. ☎ 620 710 139

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 493 913

Adinekoak zaintzeko, garbiketak edo base-riko lanak egiteko prest nago.
☎ 631 820 135

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gavez eta asteburuetan ere bai. ☎ 689 003 537

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 643 115 699

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Arduratsua naiz. ☎ 685 386 485

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 649 044 223

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. ☎ 615 526 482

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo asteburuetan. Erizain titulua eta esperientzia ditut. ☎ 631 836 738

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo asteburuetan. ☎ 638 963 048

Edozein lan egiteko prest nago, 8:00etatik 11:00etara eta asteburuetan edozein ordu-tan. ☎ 632 893 515

ETXEBIZITZAK.....
Hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.
☎ 632 642 320

BESTELAKOAK.....
Sigmako elkarte gastronomikoak bazkideak behar ditu. Informaziorako: <https://eulogio-estarta.blogspot.com/> edo <https://www.facebook.com/eulogioestarta/>

Hileta-mezak ekainaren 19tik uztailean 3ra bitartean

Marian Elizburu Kortaberria

2020ko apirilaren 11n hil zen, 67 urte zituela.
Hileta-meza, ekainaren 19an, Elgoibarren, 19:00etan.

Maria Asun Mendikute Zubiaurre

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.
Hileta-meza, ekainaren 22an, Elgoibarren, 19:00etan.

Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.
Hileta-meza, ekainaren 24an, Elgoibarren, 19:00etan.

Agustin Gorostiza Garate

2020ko apirilaren 15ean hil zen, 83 urte zituela.
Hileta-meza, ekainaren 26an, Elgoibarren, 19:00etan.

Jose Urrutia Etxabe

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 86 urte zituela.
Hileta-meza, ekainaren 29an, Elgoibarren, 19:00etan.

Ana Maria Etxabe Ostolaza

2020ko apirilaren 25ean hil zen, 71 urte zituela.
Hileta-meza, uztailean 1ean, Elgoibarren, 19:00etan.

Carmen Ferrer Ruiz

2020ko apirilaren 11an hil zen, 85 urte zituela.
Hileta-meza, uztailean 3an, Elgoibarren, 19:00etan.

Gure atariko lehendakari kargua betetzen zuen pertsonak bere etxebizitza saldu du, eta orain, kargu horri buruzko zalantzak ditugu. Jabe berriak kargu hori betetzeko aukera aztertu dugu, baina jabeak uko egin dio funtzio hori betetzeari. Jabe batzuek proposatu dute lehendakariordea hartu dezala orain presidente kargua, eta beste jabe batzuek, aldiz, etxebizitza saldu duen jabeak funtzio hori betetzen jarraitu dezala proposatu dute, kargua berritu arte.

Jabekideetako batek nahitaez hartu behar du presidente-kargua. Bere agintaldian zehar bere etxea saltzen badu, jabe izaera galtzeak berarekin dakar lehendakari kargua ere galtzea. Beraz, etxebizitza saldu duen jabeak ezingo du presidente kargua betetzen jarraitu, berak nahi izanda ere, kargu hori hartzeko ezinbesteko baldintza jabe izatea delako. Jabe berria ere ezin da behartu erosi duen etxebizitzaren saltzaileak zeukan funtzioa ordezkatzera, jabe berria ez delako legez ezarritako moduan izendatu. Azkenik, lehendakari kargua lehendakariordeari ematea proposatu duzue, baina horrek ez du esan nahi lehendakariordeak lehendakariak zituen edo garatzen aritu den ahalmen berberak dituenik. Beraz, beharrezkoa izango da Ezohiko Batzarrerako deialdia egitea, beste lehendakari bat hautatzeko, eta jabe berriak ere izango du lehendakari berria aukeratzeko aukera.

Gomendioa: Horrelako egoeretan legedia bete beharko da, egindako deialdiak eta hartutako erabakiak baliozkoak izan daitezten.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Universidad Pública Administradores Servicio Universitario



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Mikel**, ekainaren 18an 2 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, batez ere lili-goren partez.



Zorionak, **Nora** eta amama, astelehenean urteak beteko dituzuelako. Muxu bana familiako guztien partez.



Bihar Pikupeko famaun urtebetez. Zorionak, **Markel!** Bi muxu potolo Elgoibartik eta Errioxatik. Ondo pasa!



Zorionak, **Ayan!** Gaur zure lehen urtetxoa bete duzu! Muxu asko etxeko guztien partez.



Zorionak, **Unax!** 6 urte egin berri! Segi horren jatorra eta maitakorra izaten. Familia-koen, eta bereziki, Enaitz eta Aratzen partez.



Zorionak, **Aimar**, astelehenean 9 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxeko, eta bereziki, Danelen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

AGENDA

19 BARIXAKUA

18:30 Odol ateratzeak Olaizaga kirodegian. Txanda hartzeko: 623 328 408.

21:00 Zine foruma: 'La boda de Muriel'. Haizeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Maskara eraman behar da.

24 EGUAZTENA

18:00 Hitzaldia: 'Bullying LGTBfobikoa Euskal Herriko nerabeen artean'. Hizlaria: Enara Larrain Mariño. Bertintasun Sailak antolatuta, euskaraz. Zoom plataformaren bidez emango dute. Hitzaldira sartzeko lotura eskatzeko bertintasuna@elgoibar.eus helbidera idatzi behar da.

26 BARIKUA

19:00 C.D. Elgoibarko bazkideen urteko batzarra. Olaizaga kirodegiko kantxan. Maskara eraman behar da.

20:00 Kontzertua: Ion Gurrutxaga eta Urbil Artola. Makina Erremintaren Museoa. Maskara eraman behar da, nahiz beharbada ez den erabili beharko.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
19 BARIXAKUA	20 ZAPATUA	21 DOMEKA	22 ASTELEHENA	23 MARTITZENA	24 EGUAZTENA	25 EGUENA	26 BARIKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984



Jose Luis Cabrera



Iñaki Goitia



Badugu kanpai-hotsak zintzoki ematen dituen kanpandorre bat. Noiz edo noiz hil-kanpaiak ere entzun daitezke, hildakoak ere badi-tugu-eta.

Guzti honek ez gaitu beste herrietatik bereizten. Baina badago herria madarikatzen duen bitxikeria bat; gure hildakoak ez dira heriotza naturalez joaten. Izan ere, hilkanpaiak entzuten dituen lehen pertsona denbora gutxira hiltzen da, arrazoi biologiko bat egon ez arren; gutxienez egun bat eta gehie- nez hamabi egun irauten ditu gizajoak bizien artean, jo diren hilkanpai kopuruaren arabera. Apaizak jainkoaren zigortzat du gertakaria; zientzialariak ezinezkotzat. Baina herriari berdin zaio apaiza edo zientzialaria, erlijioa zein zientzia, begiek esaten diotena du egiazkotzat. Beldurra baino gehigo, ardura hartu dugu, eta ia denok estaltzen ditugu belarriok. Gazteak sinesgogorak

dira, eta fede kontuetan arduragabeak. Lehenak izaten dira hilkanpaien ziztada jasotzen. Gauzak horrela, herria zahartuz doa, eta gehienok gortu egin garenez, hilezkortasun jainkotiar baten jabetzan daukagu gure burua.

Baina herrietan kanpandorre, hilkanpai, hildako, apaiz eta zientzialariez gain izan ohi da suizida bat ere. Gaurkoan gurea igo da kanpandorrera. Buruaz beste egiteko modu asko daude, denak eraginkorak maisutasunez gauzatzen badira. Baina gure suizidak, gaztea izaki, huts barkaezina egin du; belarriak estali gabe igo da, hamabiak jotzeaz zeudenean, hain justu. Ez du, beraz, jauzi egiterik izan. Azkengabeko hamabi egun itxaron beharko ditu berak hasitako lana denborak bukatu dezan. Errukitu egin gara bere begitarte iluna ikustean, eta herri solidarioa garenez, denok hartuko dugu datozen hamabi egunotan gure suizidari ahalik eta tratu txarrena emateko ardura, egunetik egunera bizien mundutik baino hilen mundutik gertuago sentitu dadin.

Norengatik jotzen dute kanpaiek?




Agustin Osa Aizpurua

2020ko ekainaren 16an hil zen, 80 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Oier Etxaniz Beneitez

2020ko apirilaren 17an hil zen, 31 urte zituela.
Haren oroimenez hileta meza egingo da,
eguztenean, ekainaren 24an, 19:00etan,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Mariasun Mendikute Zubiaurre

2020ko apirilaren 21ean hil zen, 71 urte zituela.
Haren oroimenez, hileta meza egingo da astelehenean, ekainaren 22an,
19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

*Minak dakarren isilunea
bizitzaren ilunabarra.
Sortu den hutsuneak
ez du itzaliko su garra.
Bizitzari aurre egiteko
eredugarri zure lan eta indarra.
Gogoan geldituko da
betiko zure irrifarra.
Maite zaitugu,
zerutik begira zauden izarra.*

Etxekoak



**“Ikasi dut
berraktibatzea
elkartasunetik
etorriko dela”.**

Nerea Ibáñez
ASPEGI

Ekonomia. Ostalaritza, turismoa, bertako komertzioa, industria... Gelditu egin gara, baina inoiz baino argiago dugu “errealitate berrira” itzultzea Gipuzkoa osatzen dugun norbanako bakiltzaren esku dagoela.

#AurreraEgitekoGogoratu

Asko ikasi dugu.
Ez dezagun ahaztu.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Udaltzaletza eta
Lanpostuaren
Departamentua



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro